Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko azaroaren 17a, osteguna — 218 — Jueves, a 17 de noviembre de 2022



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

*2022-0257 Foru Agindua, azaroaren 14koa, Gipuzkoako kirol ekipamenduen planeko dirulaguntzak emateko 2022ko deialdia ebazten duena.*

Departamentuko foru diputatuak honako foru agindu hau eman du gaur:

2022ko uztailaren 26an Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakiaren bitartez onetsi ziren 2022. urteko Gipuzkoako kirol ekipamenduen planeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak.

Halaber, aipatutako dirulaguntzen deialdia Diputatuen Kontseiluak egun berean hartutako erabakiaren bidez onetsi zen, eta 2022ko abuztuaren 25an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen (162 zk.).

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (162. zk.) argitaratutako iragarkian akats bat zegoela antzemanda, Foru Gobernuaren Kontseiluak onartutako testu guztiak argitaratu ez zirenez, argitalpen hori I. eranskinean jaso ez ziren A eta B eranskinekin osatu zen, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (165. zk., 2022ko abuztuaren 30ekoa) argitaratuz.

Dirulaguntza horiek arautzen dituzten 7. oinarri orokorrean ezartzen denez, eskaerak Kirol Zuzendaritza Nagusiko teknikariek aztertuko dituzte, eta balorazio txostena egingo dute. Txosten hori Batzorde Ebaluatzaileari igorriko zaio, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko duen ebazpen proposamena egin dezan eta, ondoren, eskumena duen organoari aurkeztuko zaio onar dezan.

Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, aurkeztu direnak aztertu ditu Kirol Zerbitzuak eta balorazio txosten bat prestatu du eskaeren xedea, dirulaguntzak eman eta kopuruak zehazteko irizpideekin bat datorrela egiaztatuz.

Txosten hori lehen aipatutako ebaluazio batzordearen irizpenera jarri da eta Batzordeak 2022ko azaroaren 7ko bileran, bere egin du. Ondoren, dirulaguntza horiek emateko prozeduraren ebazpen proposamena igorri dio Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuari.

Halaber, ebazpen proposamenak deialdian ezetsitako eskaeren zerrenda jasotzen du. Eskaera horiek eta ezesteko arrazoiak foru agindu honekin batera doan 2. eranskinean jasota daude.

10.2. oinarri orokorrak eta 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, COOPERACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES

*Orden Foral 2022-0257, de 14 de noviembre, por la que se resuelve la convocatoria 2022 de subvenciones del Plan de equipamientos deportivos para Gipuzkoa.*

El diputado foral del Departamento, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:

Mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 26 de julio de 2022 se aprobaron las bases reguladoras generales del otorgamiento de subvenciones del Plan de equipamientos deportivos para Gipuzkoa 2022.

Asimismo, mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de la misma fecha, se aprobó la convocatoria de las citadas ayudas, que fue publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 162, de 25 de agosto de 2022.

Advertido que en el anuncio publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 162 constaba un error, dado que no se habían publicado la totalidad de los textos aprobados por el Consejo de Gobierno Foral, se completó dicha publicación con los anexos A y B omitidos en el anexo I, mediante publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 165, de 30 de agosto de 2022.

La base general 7.ª reguladora de estas subvenciones establece que las solicitudes correspondientes serán analizadas por el personal técnico de la Dirección General de Deportes, quien elaborará un informe de valoración que será sometido a la Comisión Evaluadora que se constituya, la cual, a su vez, emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada y la elevará al órgano competente para su aprobación.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, y analizadas por el Servicio de Deportes las presentadas, dicho servicio ha emitido un informe en el que contrasta el objeto de las solicitudes con los criterios de concesión y cuantificación de estas subvenciones.

Este informe ha sido sometido a la Comisión Evaluadora a la que se ha hecho mención anteriormente, la cual, reunida el día 7 de noviembre de 2022, haciendo suyo el citado informe, ha elevado propuesta de resolución del procedimiento de concesión de estas subvenciones a este diputado foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes.

La propuesta de resolución contempla, asimismo, la relación de solicitudes desestimadas en la presente convocatoria; solicitudes y motivos de desestimación que se recogen en el anexo 2 de los que acompañan a la presente orden foral.

De conformidad con lo dispuesto en la base general reguladora 10.2 y en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la presente convocatoria será objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

EK\CV GAO-I-2022-07141

Era berean, argitaratze horrekin bete egiten da dirulaguntzei publizitatea emateko obligazioa, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 17.1 artikuluan ezarritakoa.

Dirulaguntza lerro hau 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DLPE) dago sartuta.

Horregatik guztiagatik, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Ematea eta ordaintzea foru agindu honen I. eranskineko taulan jasotzen diren, 2022. urteko Gipuzkoako kirol ekipamenduen planeko dirulaguntzak.

*Bigarren.* Xedatzea dagokion gastua –guztira 1.950.000,00 euro– 1 0940.400.761.01.01 2022 aurrekontu partidaren kargura.

*Hirugarren.* Ezestea foru agindu honen II. eranskinean jasotako dirulaguntza eskaerak, bertan zehazten diren arrazoiengatik.

*Laugarren.* Agintzea foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2022ko azaroaren 14a.—Iñaki Sainz Paredes, idazkari teknikoa. (7141)

Asimismo, con la citada publicación se da cumplimiento a la obligación de dar publicidad de las subvenciones concedidas, prevista en el artículo 17.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La presente línea de subvención está incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES).

En su virtud, el diputado foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes,

RESUELVE

*Primero.* Conceder y abonar las subvenciones que aparecen previstas en el anexo I de la presente Orden Foral, para el desarrollo del Plan de equipamientos deportivos para Gipuzkoa 2022.

*Segundo.* Disponer el gasto correspondiente –por importe total de 1.950.000,00 euros–, con cargo a la partida presupuestaria 1 0940.400.761.01.01 2022.

*Tercero.* Desestimar las solicitudes de subvención que figuran en el anexo II de los que acompañan a la presente orden foral, por las razones que en ese mismo anexo se señalan.

*Cuarto.* Ordenar la publicación de la presente orden foral en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra la misma recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

San Sebastián, a 14 de noviembre de 2022.—El secretario técnico, Iñaki Sainz Paredes. (7141)

1. ERANSKINA (ONARTUTAKO ESKAERAK) / ANEXO 1 (SOLICITUDES ESTIMADAS)

1. LERROA / LÍNEA 1

1 0940.400.761.01.01 2022

| *Espedientea zk.*<br>*N.º expediente* | *Entitate onuraduna*<br>*Entidad beneficiaria* | *Proiektua*<br>*Proyecto* | *Dirulaguntza (euro)*<br>*Subvención (euros)* |
|---|---|---|---|
| 2022-DE02-000017-01 | Eibarko Kiroletako Udal Patronatua | Astelena pilotalekuan aldagela nagusia berritu eta solairuarte bat egiteko proiektua / Proyecto de reforma del vestuario general y entreplanta en el frontón Astelena | 71.713,00 |
| 2022-DE02-000049-01 | Ezkio-Itsaso | Ezkio-Itsasoko frontoiaren egokitzapena / Adecuación del frontón de Ezkio-Itsaso | 14.704,00 |
| 2022-DE02-000034-01 | Zumaiako Kirol Patronatua | Zumaiako Itsas Kiroldegiko berritze lanak / Reforma del polideportivo Itsas de Zumaia | 28.505,00 |
| 2022-DE02-000051-01 | Usurbilgo Udala | Oiardo Kiroldegiko harrerako komun egokitu irisgarria eta erabilera anitzeko bulegoak egitea / Realizar un aseo adaptado accesible en la recepción del Polideportivo Oiardo, así como oficinas multiusos. | 4.838,00 |
| 2022-DE02-000008-01 | Getariako Udala | Getariako kiroldegian aldagela berri bat egitea / Construcción de un nuevo vestuario en el polideportivo de Getaria | 7.671,00 |
| 2022-DE02-000028-01 | Azkoitiko Udala | Tenis ekipamendurako obrak / Obras equipamiento tenis | 211.136,00 |

EK\CV GAO-I-2022-07141

| *Espedientea zk.*<br>*N.º expediente* | *Entitate onuraduna*<br>*Entidad beneficiaria* | *Proiektua*<br>*Proyecto* | *Dirulaguntza (euro)*<br>*Subvención (euros)* |
|---|---|---|---|
| 2022-DE02-000027-01 | Irurako Udala | Kirol desberdinetarako espazio egokitzapen lanak / Trabajos de acondicionamiento de espacios para diferentes deportes | 59.585,00 |
| 2022-DE02-000033-01 | Zumarragako Udala | Zumarragako Ispilla udal kiroldegiko fitness eta arte martzial gelen zaharberritze lanak / Obras de restauración de las salas de fitness y arte marcial del polideportivo municipal de Ispilla de Zumarraga | 7.696,00 |
| 2022-DE02-000035-01 | Zizurkilgo Udala | Intxaur pilotalekuaren birgaitzea / Rehabilitación del frontón Intxaur | 13.134,00 |
| 2022-DE02-000056-01 | Pasaiako Udala | Donibane kiroldegiko estalkian inpermeabilizazio lanak / Obras de impermeabilización en la cubierta del polideportivo Donibane | 35.379,00 |
| 2022-DE02-000062-01 | Ikaztegietako Udala | Ikaztegietako kiroldegian gimnasio berri bat egokitzeko proiektua / Proyecto de acondicionamiento de un nuevo gimnasio en el polideportivo de Ikaztegieta | 14.873,00 |
| 2022-DE02-000061-01 | Mutiloako Udala | Mutiloako Gurruntzain frontoian egokitzapenak egitea; pintaketa eta LED argiak jartzea / Adaptaciones en frontón Gurruntzain de Mutiloa; pintado e iluminación LED | 21.951,00 |
| 2022-DE02-000063-01 | Larraulgo Udala | Murgilazpi pilotalekuko komunen, frontisaren eta panel elektrikoaren konponketa / Reparación de los baños, frontis y panel eléctrico del frontón Murgilazpi | 8.593,00 |
| 2022-DE02-000037-01 | Zaldibiako Udala | Zaldibiako Resti pilotalekuan argiteria LED teknologiara ordezkatzea eta argiak pizteko sistema elektronikoa instalatzea / Sustitución del alumbrado del frontón Resti de Zaldibia por tecnología LED e instalación de un sistema electrónico de encendido de luces | 7.374,00 |
| 2022-DE02-000018-01 | Asteasuko Udala | Usarrabi kiroldegiko frontoiaren konponketa lanak / Trabajos de reparación del frontón del polideportivo Usarrabi | 31.333,00 |
| 2022-DE02-000040-01 | Berrobiko Udala | Eskolako pilotalekua eta kirol anitzeko kantxa birgaitzea / Rehabilitación del frontón y de la cancha multideportes de la escuela | 21.503,00 |
| 2022-DE02-000026-01 | Lasarte-Oriako Udala | Padel pistaren lurra aldatzea / Cambio de suelo de la pista de pádel | 3.301,00 |
| 2022-DE02-000020-01 | Ataungo Udala | Zelai pilotalekua zaharberritzeko lanak / Rehabilitación del frontón Zelai | 19.084,00 |
| 2022-DE02-000015-01 | Astigarragako Udala | Txomiñenea pilotalekuko baranda aldatzea / Sustitución de la barandilla del frontón Txomiñenea | 9.687,00 |
| 2022-DE02-000060-01 | Villabonako Udala | Villabonako Bearzana pilotatokia margotzea eta egokitze lanak burutzea / Pintado y acondicionamiento del frontón Bearzana de Villabona | 8.950,00 |
| | | Guztira / Total | 601.010,00 |

2. LERROA / LÍNEA 2

1 0940.400.761.01.01 2022

| *Espedientea zk.*<br>*N.º expediente* | *Entitate onuraduna*<br>*Entidad beneficiaria* | *Proiektua*<br>*Proyecto* | *Dirulaguntza (euro)*<br>*Subvención (euros)* |
|---|---|---|---|
| 2022-DE02-000029-01 | Amezketako Udala | “Beltzaren Plaza” kirol eta aisialdi gunearen, berrantolaketa / Reordenación del espacio deportivo y de ocio “Beltzaren Plaza” | 56.272,00 |
| 2022-DE02-000057-01 | Arrasateko Udala | Obenerreka frontoia parkour parke batean birmoldatzea / Remodelación del frontón Obenerreka en un parque parkour | 89.923,00 |
| 2022-DE02-000052-01 | Urretxuko Udala | Parke bio-osasungarriaren instalazioa / Instalación parque biosaludable | 25.841,00 |

| *Espedientea zk.*<br>*N.º expediente* | *Entitate onuraduna*<br>*Entidad beneficiaria* | *Proiektua*<br>*Proyecto* | *Dirulaguntza (euro)*<br>*Subvención (euros)* |
|---|---|---|---|
| 2022-DE02-000011-01 | Elgetako Udala | Skate pista / Pista de Skate | 12.478,00 |
| 2022-DE02-000039-01 | Zarauzko Udala | Kalistenia parkea Zarauzko malekoian / Parque de Calistenia en el malecón de Zarautz | 9.737,00 |
| 2022-DE02-000012-01 | Azpeitiko Udala | Izarraitz skate park-a / Skate park Izarraitz | 132.134,00 |
| 2022-DE02-000006-01 | Andoaingo Udala | Pump track zirkuito bat eraikitzea / Construcción de un circuito Pump Track | 40.763,00 |
| 2022-DE02-000030-01 | Amezketako Udala | Motako aisialdi eta kirolgunea eraikitzea / Construcción de zona de ocio y deporte en la zona de Mota | 2.637,00 |
| 2022-DE02-000005-01 | Berastegiko Udala | Kirol jarduerarako oinezko eta bizikletentzako bidea egokitzea / Acondicionamiento de vía peatonal y ciclista para la actividad deportiva | 30.652,00 |
| | | Guztira / Total | 400.437,00 |

3. LERROA / LÍNEA 3

1 0940.400.761.01.01 2022

| *Espedientea zk.*<br>*N.º expediente* | *Entitate onuraduna*<br>*Entidad beneficiaria* | *Proiektua*<br>*Proyecto* | *Dirulaguntza (euro)*<br>*Subvención (euros)* |
|---|---|---|---|
| 2022-DE02-000004-01 | Donostiako Udal Kirol Patronatua | Donostiako Puioko futbol-errugbi zelaian belar artifiziala kendu eta belar artifizialeko sistema jartzea / Retirada de la hierba artificial existente y posterior suministro y colocación de un sistema de hierba artificial en el campo de fútbol-rugby de Puio de Donostia | 101.053,00 |
| 2022-DE02-000031-01 | Lazkaoko Udala | Harizti kirol gunean futbol zelaiko belarra eta argiteria aldatzea / Cambio de hierba e iluminación del campo de fútbol en el complejo deportivo de Harizti | 150.000,00 |
| 2022-DE02-000016-01 | Oñatiko Udala | Azkoagain futbol zelaiko berriztatze proiektua / Proyecto de reforma del campo de fútbol de Azkoagain | 150.000,00 |
| 2022-DE02-000007-01 | Aretxabaletako Udala | Ibarra futbol zelaiko ureztatze sistema berritu eta belar artifiziala aldatzea / Renovación del sistema de riego y sustitución de hierba artificial en el campo de fútbol Ibarra | 73.746,00 |
| 2022-DE02-000048-01 | Beasaingo Udala | Igartza futbol zelaiko belar artifizialaren aldaketa eta handitzea / Modificación y ampliación de la hierba artificial del campo de fútbol de Igartza | 150.000,00 |
| 2022-DE02-000001-01 | Debako Udala | Errotazar futbol zelaian belarra aldatzea / Cambio de hierba en el campo de fútbol de Errotazar | 83.201,00 |
| 2022-DE02-000010-01 | Bergarako Udala | Bergarako Agorrosin futbol zelaia belar naturaletik belar artifizialera aldatzeko lanak / Cambio de hierba natural a artificial del campo de fútbol de Agorrosin de Bergara | 150.000,00 |
| 2022-DE02-000058-01 | Segurako Udala | Futbol zelaia handitzea / Ampliación del campo de fútbol | 11.789,00 |
| 2022-DE02-000059-01 | Irungo Udala | Artia futbol-zelaiko argiztapena aldatzea / Cambio de la iluminación del campo de fútbol de Artia | 23.654,00 |
| 2022-DE02-000032-01 | Oiartzungo Udala | Karla Lekuona futbol zelaiko aldagelen berriztatzea eta handitzea / Reforma y ampliación de los vestuarios del campo de futbol Karla Lekuona | 55.110,00 |
| | | Guztira / Total | 948.553,00 |

2. ERANSKINA (EZETSITAKO ESKAERAK) / ANEXO 2 (SOLICITUDES DESESTIMADAS)

| *Espedientea zk.*<br>*N.º expediente* | *Entitate onuraduna*<br>*Entidad beneficiaria* | *Proiektua*<br>*Proyecto* | *Arrazoia*<br>*Motivo* |
|---|---|---|---|
| 2022-DE02-000009-01 | Aizarnazabalgo Udala | Etxezarretako kiroldegian pumptrack zirkuitua jarri eta dagoen zatia egokitzea / Instalación del circuito de pumptrack en el polideportivo de Etxezarreta y acondicionamiento del tramo existente | 1 |

EK\CV GAO-I-2022-07141

| *Espedientea zk.*<br>*N.º expediente* | *Entitate onuraduna*<br>*Entidad beneficiaria* | *Proiektua*<br>*Proyecto* | *Arrazoia*<br>*Motivo* |
|---|---|---|---|
| 2022-DE02-000019-01 | Legazpiko Udala | Bikuña kiroldegiko igerileku estaliaren birmoldaketa eta eraberritzea / Remodelación y reforma de la piscina cubierta del polideportivo Bikuña | 1 |
| 2022-DE02-000044-01 | Urretxuko Udala | Pumtrack pista-zirkuitu bat eraikitzea / Construcción de una pista - circuito pumtrack | 1 |
| 2022-DE02-000053-01 | Gabiriako Udala | Kanpoko kirol instalazioak handitzea / Ampliación de instalaciones deportivas exteriores | 1 |
| 2022-DE02-000043-01 | Olaberriko Udala | Ihurre pilotalekuaren birgaitzea “Aristrain Kirol Gunea” / Rehabilitación frontón ihurre “complejo deportivo Aristrain” | 1 |
| 2022-DE02-000021-01 | Antzuolako Udala | Eztala futbol-zelaiko argiztapena berritzea / Renovación de la iluminación del campo de fútbol de Eztala | 2 |
| 2022-DE02-000002-01 | Soraluzeko Udala | Soraluzeko Ezozi futbol zelaiko argiteria LEDera aldatzea / Cambio de alumbrado a LED del campo de fútbol Ezozi en Soraluze | 2 |
| 2022-DE02-000047-01 | Mutrikuko Udala | San Miguel udal futbol zelaiko argiteri guztia LEDera aldatzeko proiektua / Proyecto de cambio de todo el alumbrado del campo a iluminación LED del campo de fútbol municipal de San Miguel | 2 |
| 2022-DE02-000022-01 | Hernaniko Udala | Zubipe futbol zelaiko estalkia konpontzea / Reparación de la cubierta del campo de fútbol Zubipe | 2 |

| *Ezesteko arrazoia* | *Motivo de desestimación* |
|---|---|
| 1. Oinarri arautzaileen I eranskinaren A eranskinean agintzen den obrak exekutatzeko epea ez betetzea. | 1. El incumplimiento del plazo de ejecución de las obras exigido en el anexo A del anexo I de las bases reguladoras. |
| 2. Aurrekontua agortuta | 2. Presupuesto agotado |

EK\CV GAO-I-2022-07141